

Bizialdiak

Joxean Agirre

Denborak fikzio ukitu bat ematen die gertakariei, gertatu ote ziren ere zalantzan jartzeraino. Atzera begira jarri eta haurtzaroko zenbait oroitzapen geuk asmatuak direla iruditzen zaigu eta larri ibili asko hala izaten.

Auzoko eskolan, esaterako, goizero maistrak makila bana ematen zigun eskura eta harekin arbelean bakoitzak bere letrari sekulako kolpeak joz, ikasi genuen alfabetoa, letra ahots goraz errepikatuz. Baina kontatzen dudana bakoitzean sinestegaitz begiratzen didate ingurukoek eta neuri ere asmatua, gezurrezkoa ote den iruditzen zait.

Beste adibide bat: astero ogia egiteko erabiltzen zen ore-mahaira (orea egiteko aska) igotzen gintuen amak bi ume txiki, hankak garbitu ondoren, eta Errioxako

miss-ek mahatsa zapaltzen duten modu berean zapaltzen genuen guk orea, ganorara pixka bat gehiagorekin, hori bai, dantz tribal bat egiten ari bagina bezala. Gaur ama biziko balitz eta galdetuko bannio, lotsatu egingo zen eta ukatu egingo zidan seguru asko oroitzapen hori, eta ea zergatik asmatzen ditudan txorakeria horiek esango zidan, bera hain emakume moderna eta dotorea izaki.

Hartu, bi idazle aipatzearen, Saramagoren edo Thomas Bernarderen haurtzaroak eta gisako istorioak kontatzen dituzte.

Ez horrenbeste baina fikziotik asko dutela iruditzen zait “Egin” egunkariko langile asanblada amaigabeek edo lanean hasi eta egin nituen lehen elkarrizketek edo 80ko hamarkada hasierako giro politiko nahasiari buruzko kontuek, mende

urrun batekoak edo, neureak izatekotan ere, beste bizialdi batekoak direla.

Horregatik, arraroa egiten zait norbaitek, orain berrogei urteko istorioez ari dela, «orain aurrean balego bezala ikusten dut» edo «atzot gertatu balitz bezala gogorra dezaket» edo gisako esaldi borobilen bat esaten duenean. Niri kontrakoa gertatzen zait, orain hogeit urteko kontu asko sinestezinak iruditzen zaizkidalako.

Adinarekin denbora azkartu egiten da, bizitzari bukatzeko presari sartu balitzaio bezala. Baina, hala ere, badakit hemendik hamar urtera covidak eta AstraZeneka, Euskaltel eta MasMovil edo Urkullu eta konpainia gauza urrunak, irrealak egingo zaizkidala. AHTk bakarrik jarraituko du aktualitate izaten. Gure tren hori izango da askoren biografian bizialdiak josiko dituen lotura bakarra. •

«Guztion artean lortuko dugu!»

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Lore zuri batetik polena hartzen ari den erlearen argazkia. Horixe du kartzelatik 2020. urte amaieran jaso nuen postalak. Cadizetik bidalitakoa da, Puerto III espetxeko bigarren modulutik.

Eguberrietako egunak ahalik eta ondoen pasatzeko desirak daude eskuz izkiriatura, idazkera dotore eta ulergarrian.

Paradoxa latza: etxekoengandik urrun, bakartuta, eta egun horietan “aske” gaudenok xahutzen ditugun gehie-

gikerietarako aukerarik ez duena egun goxoak igarotzeko opatzen.

Idatzian ageri da beste desira bat ere: «Ea 2021a den, azkenean, dispartzioa amaituko den urtea, elkarrekin lortuko dugu!». Ideia horri heldu nahi diot Preso Politikoen Nazioarteko Egun honetan.

Astekari hau barne hartzen duen egunkariak aste honetan argitaratu duenez, salbuespenezko legedia bertan behera utziz gero, 168 euskal preso politikok beharko lukete aske. 134ri legokieke hirugarren graduaren egotea, zigorraren

erdia beteta dutelako. Eta 68k egon beharko lukete baldintzapean aske.

Bada garaia, beraz, arrazoi politikoenatik preso dauden horien egoera politikoki konpontzeko bitartekoak jartzeko. Har ditzagun kaleak ezin dutenengatik, eska dezagun gurekin nahi ditugula, aske, herrian. Martxoaren 26ko albistea da niri heldutako postalaren igorlea Iruñeko espetxera lekualdatuko zutela. Ea 2022ko udaberrirako, hark eta gainerakoe, izan dezaketen aukera postaletako argazkietatik harago ere loreak ikusteko. •